

Herri programa proposamena  
**2019**

---

# Herri aurreratua

**ehildu**



## **Aurkibidea**

<b>1.</b> Industria .....	05
<b>2.</b> Elikadura burujabetza .....	09
<b>3.</b> Ekonomia zirkularra .....	13
<b>4.</b> Zerbitzuak eta turismoa .....	17
<b>5.</b> Merkataritza .....	21
<b>6.</b> Hedabideak .....	25



# Industria

## Diagnostikoa, situación

Euskal Herriko egoera ekonomikoa konplexua da, lurralde oro har aurreratua den heinean. Argi-izunak dituen eta munduan den krisiak, indartsuak garen esparruan jo gaitu gogorren. Lurralde aurreratu gehienetan finantza sektorea izan bada kaltetuena, gurean industria izan da minduena.

Barne Produktu Gordinak (BPG) neurtzen duen ekoizpena handia da, Europako 276 erregioren artean 51. tokian gaudelarik. Europako batez bestearen % 19 gehiago.

Ekonomia sozialak (kooperatibak, sozietate anonimo laboralak eta beste) garrantzia handia dauka gurean eta Europa mailan lurralde indartsuena da. 1.800 enpresa baino gehiago eta 88.000 inguru bazkide dituen sektorea da.

Egoera orokorra hau izaki nolanahi ere, gure lurraldeko ekonomia pisua galduz doa Europan, izan ere 2008an 34. tokian ginen sailkapenean BPGri dagokionez, orain baino 17 toki aurrerago. Orduan Europako batez bestetik %30 gora geunden eta egun %19.

Gainera, langabezia-tasa 13,9an da, Europako batez bestea 8,7 denean.

Datu hauek agerian uzten dute industria sektorearen beherakada oso kezagarria dela. 2008an 225.337 langile baziren ere EAEn, 2015ean 171.184 (%24 gutxiago) besterik ez ziren. Establezimenduei dagokionez, 2.812 gutxiago daude 2017an 2008an baino, -%21.

Ondorioz, errenten banaketa urruti dago berdintasunetik. Europako banaketa-berdintasun sailkapena eginez, Euskadi 8. egon zen 2014an estatuen zerrendan, baina hala-moduzko adierazle horren azpian, egoera oso latzak ezkututzen dira. Pobrezia latza jasaten dutenak %5,4 dira eta diru-sarreraren zenbatekoei begiratzen badiegu, sarreraren medianaren %60tik behera bizilagunen % 18,5 dira. Adierazle hau Europako txarrenetakoa da. 2006an %14,8 ziren, beraz, 10 urtetan %20 okertu da adierazlea.

## Helburu orokorra

Ezinbestekoa da politika industrialarekiko sentikorrak diren arloen arteko koordinazioa ematea: fiskalitatea, finantzaketa, gai diren pertsonen prestakuntza, azpiegitura lehiakorrak... Industria-plitika eraginkorrak eskatzen du erakunde-ingurune desberdinen artean eredia partekatzea.

Industria-enpresak izaera pribatukoak dira gaur egun. Lankidetzaren publiko-pribatuan oinarritutako politikak erraztu egiten du baliabide gehiago erabiltzea eta ezartzea, eta sendotasunez adostutako helburu eta jardura osagarriak dituen industria-politikaren koordinazioa ere bai; horrela bada, industria-sektorearen emaitzak indartuko lirateke, eta herrialdeari eta herritarren bizitza-kalitateari dagozkien emaitzak zabalagoak ere bai.

Behar beharrezkoa da gure industria sektorea jasaten ari den beherakada iraultzea, eta horretarako Industria Politika eraginkor bat martxan jarri beharra dago, eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko adostasunetatik abiatuz.

Teknologikoki aurreratua eta produktiboki espezializazioan dibertsifikatua izango den ehun industrialia izan behar dugu helburu, sozialki bidezkoa eta fiskalki arduratsua izango dena, ezinbestean ingurugiroarekiko jasagarria eta nola ez, gure lurraldean orekatua.

### ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

**1.- Nagusi den industria-eredua eraldatzea beste eredu baterako bidean, lurraldean errotua, teknologikoagoa, ingurunearekiko errespetu handiagoa duena, energia gutxiago kontsumitzen duena eta langileen partaidetza handiagorekin**

- Industria-birmoldaketako planak martxan jartzea gehien erasandako eskualdeetan eta krisian dauden sektoreetan.
- Inbertsio-funtsak, txoke-planak edo industria-larrialdiko planak martxan jartzea arriskuan dauden enpresak berrabiarazteko.
- Injekzio publikoaren bidez sortu beharreko lanpostuak kalkulatzeko.
- Aholkularitza tekniko finantzarioko bulegoak sortzea.
- Lankidetzaren hitzarmenak sustatzea unibertsitateekin, prestakuntza-zentroekin, eskualde-garapeneko agentziekin eta lurraldeko parke teknologikoekin enpresen berrikuntza sustatzeko, baita kapitalean egin beharreko inbertsioa I+G+Brako, lehiakortasuna, nazioartekotzea eta maila teknologiko handia lortzea ere.

- Lankidetza administrazioen eta sektore publikoaren artean, zuzenean parte hartuta industria-sektorean eskualdeko garapen-agentzien, udalen edo foru-aldundiaren bidez.
- Tokiko ekonomia bultzatzea: sektore estrategikoetako inportatutako produktuak produkzio propioko produktuekin ordeztzea.
- ETEak eta kooperatibak bultzatzea, eta haiei aholkularitza eskaintzea laguntza-lineen bidez.
- Ingurumen- edota energia-arloko auditoriak egiteko aukera sustatzea, laguntza berezia eskainiz ETE eta kooperatiba txikiei.
- Ikerketari, berrikuntzari, berritzeari eta ikaskuntzari buruzko programa espezifikoak diseinatzea energia berriztagarriari eta energia-efizientziari buruz.
- Klausula sozial eta teknologikoak ezartzea enpresa edo kooperatibei laguntza instituzionalak emateko programetan, horretarako, besteak beste, kontratazio arduratsua sustatzeko eta berrikuntza pizteko foru-arauak garatuta.





# Elikadura burujabetza

## Diagnostikoa, kokapena

Mundu mailan elikagaien kontrola esku gutxietan pilatu da, azkeneko hamarkadetan ekoizpen eredia tokian tokiko beharren arabera izatetik, esportatzeko ekoizpen industrial eta mugarik gabeko arrantza masibora pasatu dira. Ondorioz, munduko hainbat herrialdetan eredu familiarrak baztertu dira eta, FAOren arabera, historiako gose tasarik handienak ikusten ari gara.

Euskal Herriko elikadura-sistemara aspaldi iritsi dira elikagaien merkatuen liberalizazioa eta globalizazioa. Europar Batasunetik, Madrildik eta Euskal Herriko instituzioetatik azken hamarkadetan ezarritako politikek gainera, lehenengo sektorea indartu beharrean, oinarritzko elikagaietan kanpoko menpekotasuna izugarri areagotu dute. Politika horien ondorioz, gure herria kalitatez elikatzeko ezinbestekoa den nekazaritza eta arrantza sektoreak krisi kronifikatuan murgilduta daude: lanpostuen galera etengabea, emakume eta errelebo falta, errentagarritasun ekonomikorik eza... Industrializazioa eta espezializazioak gure lurraldean ez du balio izan lehenengo sektorea suspertzeko eta, beste arlo batzuetako politikek, lurralde antolaketan, merkataritzaren inguruan, industrian eta abar, gure herriko elikadura burujabetzarako oztopo handia dira gaur egun. Horretaz gain, ezin dugu ahaztu politika publikoek ingurunea eta elikagaien kalitatea bigarren mailan kokatu dituztela, iritsi ez den balizko bideragarritasun ekonomikoa salduz.

## Helburu orokorra

Herri gisa, gure helburu nagusienetarikoa herritar guztion kalitatezko elikadurakiko eskubide subjektibo bermatzea da. Horretarako elikadura burujabetzaren sustapena da bidea.

Ekoizpenean, transformazioan, komertzializazioan, formazioan, sentsibilizazioan eta abar, lurralde kohesioa eta orekak bermatuz, herri ikuspegiko planifikazioari ekiteko garaia da. Ildo honetan, Euskal

Herriko herrialdeen arteko harremanak bultzatzea lehentasunezkoa da. Eskualde guztietan tokiko elikadura sistemak garatzeko egiturak sortzeko apustua egin nahi dugu. Agroekologiaren bidez, gure kulturaren eta baliabide naturaletan oinarritutako nekazaritza jarduera iraunkorra sustatzea da gakoa etorkizuna bermatzeko.

Legealdi honetan, elikadura sistemaren parte garen guztion ahalegin berezia egitea ezinbestekoa da elikadura sistema iraunkorragoa eta bidezkoagoaren bidean urrats objektiboak emateko. Norabide horretan, legealdi hau baliatu behar dugu Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian nekazaritza eta arrantza krisi egoeratik ateratzeko eta etorkizuneko oinarri sendoak ezartzeko.

## ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

### 1.- Lurraren, uraren eta hazien bidezko kudeaketa publikoa bultzatzea

- Tokian toki diagnostiko sakon eta partizipatibo bat egitea sektoreko agenteekin, nekazaritza-parkearen egungo eta etorkizuneko egoera islatzeko udalerrietan, eskualdeetan eta lurraldean.
- Figura dinamizatzailerak bultzatzea eskualda daitezkeen lur eta ustiapenak detektatu eta identifikatzeko, balio handiko lurak detektatzeko edo politika publikoak definitzen laguntzeko.
- Lurreko tokiko funts publikoak sortzea lur horiek babesteko, haien salerosketa-prezioak arautuz, lurraren erosketa publikoa bultzatuz eta irizpide sozialak aplikatuz emakume, gazte eta migraziozailerak lehentasunez sar daitezen irizpide sozialak aplikatuta, agroekologiako proiektuak sustatuz... tokiko produkzio jasangarriko printzipioei jarraikiz.
- Aurrekontuaren ehuneko jakin bat lurra erostera bideratzea.
- Tokiko arro hidrikoak esploratzea energia sortzeko proiektuetarako.
- Hazi-bankuen sareen sorrera babestea barietate autoktonoak kontserbatzeko eta ugaltzeko, eta haien erabilera bultzatzea toki-ustiategietan.
- Lurraldea antolatzeko gidalerroak finkatzea biodibertsitatea eta tokiko elikadura-sistemak kon-tuan izanda.
  - Basoak: biomasa, zura eta biodibertsitatea kudeatzea. Basogintzarako gaitzea
  - Elikatu beharreko jendearentzat nahikoak diren laborantza-lurrak
  - Laborantza-lurrak babestea

## 2. Nekazaritza jasangarri eta sozialki justua babestu eta bultzatzea

- Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategi txikiak jasangarriak izan daitezen laguntza publikoko lineak bultzatzea edo martxan jartzea, dibertsifikazioa, tokiko produkzio jasangarri eta ekologikoa, tokiko bariedade eta arrazak, eta abar, sustatuz, besteak beste, eta bereziki zailtasun naturalak dituzten guneei mesede eginez.
- Unibertsitateen edota nekazaritzako prestakuntza-zentroen eta baserritarren eta arrantzaleen arteko lankidetzak sustatzea tokiko premietara egokitutako eta nekazaritza jasangarriko eredu baten bultzatzaile den I+B+Gko eredu bat bultzatzeko.
- Elikagai osasuntsu eta kalitatezkoen erosketa publikoa tokiko baserritar eta arrantzaleei, elikagaiak kontsumitzea barnean hartzen duten udal-jardueretarako (jardunaldiak, ekitaldi publikoak, harrerak, eta abar)
- Bizitza pertsonala eta familia-bizitza uztartzera bideratzen diren neurri-sortak bultzatzea, batez ere nekazaritza-esparruan emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak gutxitzea ahalbidetzen dutenak.
- Genero-ikuspegia duten prestakuntza-prozesuetako parte-hartzea erraztea elikagai kalitatezko eta jasangarriak produzitzeko, lehen instalazioa egiteko, eraldatzeko eta zirkuitu laburretan merkaturatzeko, eta abar.
- Produzitzailen arteko, kontsumitzaileen arteko eta produzitzailen eta kontsumitzaileen arteko sare eta aliantzen sorrera sustatzea lurraldean, eskualdean eta udalerrian.
- Zerga-sistema progresibo eta bidezko bat sustatzea tamaina txikiagoko ustiategietarako.
- Baserritar eta arrantzaleen bizitza hobetuko duten gizarte-zerbitzuak zabaltzeko aukera erraztea, emakumeen premiak bereziki azpimarratuz eta bereziki kontuan hartuta landaguneetako indarkeria matxisten problematika.

## 3. Eraldaketa- eta merkaturatze-eredu bat babestea eta bultzatzea nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorean, tokiko ekonomia jasangarri eta bidezkoari jarraikiz

- Bultzada ematea eraldatzeko eta merkaturatzeko azpiegiturei eta lehen sektoreari lotutako industriaren garapenari. Eskualdeko azpiegitura txikien sareak sortzeko aukera erraztea, hala nola eraldaketa-zentroak, hiltegiak, eta abar, balio erantsia ekarriko dutenak, tokiko premietara egokitzen direnak, eta laguntza jakinekin batera etorriko direnak, sare horiek kolektiboki eta gardenki kudeatzeko.

- Laguntza-linea espezifikoak bultzatzea eta sortzea, tokiko ekimenei zuzendutakoak banaketarako eta merkaturatzerako: merkatu agroekologikoak eta kudeaketa publikoko tokiko salmenta-zentroak, kontsumitzaile eta produzitzaileen sareak, eta abar.
- Araudi sanitarioa malgutzea eskala txikiko eraldaketarako.
- Emakumeak eta gazteak sektorean sartzeko programa bat abiaraztea.
- Jantoki kolektiboak agroekologiako eta elikadura-subiranotasuneko oinarriarekin: haurreskolak, egoitzak, langile publikoen jantokiak (polizia, su-hiltzaileak, eta abar).
- Tokiko industria-sarearekin lan egitea, haien enpresetako jantoki kolektiboek toki-produzitzailen produktuak bil ditzaten.
- Jantoki sozialak agroekologiako eta elikadura-subiranotasuneko oinarriarekin: pertsona guztientzako elikadura osasuntsu eta kalitatezko baterako eskubidea egikaritzuz.
- Gizarteratzeko eta laneratzeko produkzio-proiektuak lur publikoan: prestakuntza-eskaintzak agroekologian eta produkzioan, desabantaila sozialean dauden pertsoneri zuzendutakoak. Nekazaritza periurbano produktiboa.
- Merkaturatze-zirkuitu laburrak bultzatzea: kontsumitzaileen, saltokien eta produzitzaileen arteko aliantzak sendotzen dituzten estrategiak garatzea.
- Ostalaritza agroekologikoko tokiko sarea: tokiko produktu agroekologikoa sareko establezimenduetan erabiltzea eta erostea bultzatzen duten programak garatzea.
- Azokak dinamizatzea eta bultzatzea, erosketa-leku eta komunitatea egiteko gune bezala.
- Ekonomatoak martxan jartzea auzo edota herrietan, toki-produktua pertsona guztiei hurbiltzeko.

## Ekonomia zirkularra

### Diagnostikoa, kokapena

Naturak metabolismo jasangarria du eta modu zirkularrean funzionatzen du. Baliatzen ditugun produktu eta zerbitzu naturalak, giza eskalan, modu zirkularrean ekoizten dira. Garapen jasangarria nahi badugu ekonomia zirkularra izan behar da gure apustua.

Gaur egungo ekoizpen-sistemak, funtsean, eskema lineala du: 1) Naturatik baliabideak erauztea; 2) Eraldatzea produktuak eta zerbitzuak ekoizteko; 3) Prozesu horretan hondakin ugari sortzen dira, eta horiek naturara itzultzen dira era guztietako inpaktu larriak eraginda. Ekoizpen-sistema lineal hori ez da ez bideragarria ezta jasangarria ere, naturan dauden baliabide material eta energetikoak agortzen dituelako, eta inpaktuak eragiten dituelako airearen, uraren eta luraren kutsadura eraginez, edota biodibertsitatearen galera ekarriz. Inpaktu horiek gainera ez dira berdin banatzen, eta egoera ahulenean dauden gizarte-maileri eragiten diete (pobrezia maila handiena eta gizarte-babes txikiak dutenei).

Gutzizko material-eskakizunen %90 ingururi beste eskualde batzuetatik inportatutako natura-baliabideen eta energiaren bidez erantzuten zaie. Kanpoko mendekotasun hori Belgikaren eta Herbeheren antzekoa da, handiagoa da Erresuma Batuarena baino, eta Alemaniarena halako bi ia. Baliabideen erabilera handi horren ondorioz, kanpoko faktoreen aurrean oso egoera ahulean dago gure ekonomia, eta haien mendekoa da erabat.

Horretaz gain, nabarmendu beharra dago gutzizko material-eskakizunen inportazioa zein gure kontsumo-eredua lotuta daudela material horiek erauzten dituzten tokietan gertatutako ingurumen- eta gizarte-inpaktu handiekin.

## Helburu orokorra

Gaur egungo ekoizpen-sistema lineala zirkular bihurtu nahi dugu, bi oinarri edukita: 1) ekoizpen-sistemak ziklo materialak ixten ditu, ez du inoiz hondakinik sortzen, naturan gertatzen den moduan; 2) ekoizpen-sistemak energia berriztagarria kontsumitzen du, eta horri esker baliabide materialak ere badiren baliabide fosilak agortzea saihesten da (ikatz, petroleoa, gas naturala).

Sistema lineal batetik zirkular batera igaroko bagara, gure eredu sozioekonomikoaren eraldaketa sakona egin beharra dago; giza baliabideak, ezagutza eta berrikuntza kopuru handian beharko dira, baita jarrera-aldaketak ere (esaterako, kontsumitzeko eta hondakinak sortzeko ohiturak). Baina enplegu eta lanbide asko ere sortuko dira askotariko sektoreetan, arlo teknologikoan ez ezik, baita arlo sozialean ere.

### ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

#### **1.- Hondakinen kudeaketako hierarkia ezartzea garatzen diren politiken marko orokor gisa: prebentzia-berrerabiltzea-birziklatzea-balioztatzea-ezabatzea**

- Herritarren eskueran jartzea hondakinak biltzeko hurbileko sistemak, sailkapen posible guztiak bilduko dituztenak.
- Hondakinen sortzaile handiekin batera lan egitea sortzen dituzten hondakinak murrizteko eta birziklatzeko.
- Hondakinen murrizketa bultzatzea. Ingurumen-arloko sentsibilizazio- eta heziketa-proiektuak.
- Ekonomia sozialeko agenteekin batera proiektu sozioekonomikoak garatzea produktuen berrera-bilerako eta bigarren bizitzetarako.
- Unibertitateen edota prestakuntza-zentroen arteko lankidetzaren sustatzea, erronketara egokitzea ahalbidetuko diguten teknologien garapena bultzatzeko herrialde gisa dugun gure hondakinen kudeaketaren inguruan.

#### **2.- Europak proposatzen duen ekonomia zirkularreko paketearen oinarritutako produkzio-sistemarako trantsizioan aurrera egitea**

- Informazioa biltzeko sistemak hobetzea, materialen eta substantzien atmosferarako isurketak egiaz kuantifikatzeko.

- Komunikazio eta informazio publiko eta gardeneko kanalak ezartzea, betiere herritarren kontrolerako markoekin.
- Asmo handiko tokiko programak martxan jartzea isurketak eta birziklapena kontrolatzeko, industriaren, nekazaritzaren zein etxebizitzaren arloan, EBk eskatutako gutxieneko mugak markatuta. Modu partizipatiboan definitu eta abiarazi beharko dira programa horiek.
- Tokian tokiko etxeko konpostajeko eta konpostaje komunitarioko prozesuak bultzatzen jarraitzea, zenbait udalerriren jardunbide egokiak adibide gisa hartuta.
- Udalerrietan fiskalitate berdeari buruzko neurrien ezarpena bultzatzea: hondakinak sortzeagatik ordaintzea eta hobariak.
- Materialen zirkularitate-klausuak barnean hartzea administrazioaren kontratazio publikoan.





## Zerbitzuak eta turismoa

### Diagnostikoa, kokapena

Langile okupatuena %15-20 autonomoak/ekintzaileak dira, pisu handia dute sozioekonomian. Konkre-  
tuki EAEn autonomoen tasa %19koa da, 2016an 175.000 langile, hauetatik 55.000 inguru kooperati-  
bistak direlarik, eta gainontzekoen artean autonomo gehienak zerbitzutan (komertzioa, ostalaritza,  
gremioak, ...) daude.

Beraiei zuzenduriko politika publikoak eskasak dira, eta ekonomian duten pisua kontutan izanik, be-  
harrezkoa da espresuki beraiei zuzenduriko neurriak lehentasunez martxan jartzea.

Europako egoerarekin alderatzen badugu, non batzuetan besteko tasa %14a den, Europa hego eta ekialdeko  
herriak dira, merkatu laboral ez-egonkorrenak dituztenak, tasa altuena agertzen dutenak (Grezia, Es-  
painia, Italia, ... %25-30) eta beste muturrean daude ekonomia dinamikoagoa eta lan merkatu egonko-  
rrak dituztenak (Alemania, iparraldeko herrialdeak, ... %10).

Langabezi tasarekin konparaketa egiten badugu, langabezia tasa altuak dituzten herrialdeek autono-  
mo tasa handiak dituzte, eta alderantziz, langabezi tasa baxuak dituzten herrialdeek gutxiago, beraz,  
ondorioztatuenez Lan Autonomoa langabetuentzat alternatiba batean bilakatu daitekeela, beti  
ere politika publiko egokiek lagunduta baldin badago.

Oso kezagarria da azken urteetan hainbat sektorek bizi duten egoera: langileek pairatzen dituzten lan  
baldintzak kaxkarrak dira, negozioak etengabe ixten ari dira, ez dago erreleborik, handiak txikiari ez  
dago espaziorik uzten, ... egoera hau irauli beharra dago.

Turismoari dagokionez, argi dago orain arteko politikek ze ondorio izan dituzten: turismoa ohiko hiri-  
gune turistikoetan metatzen da eta irizpide jasangarrietatik urruti dago.

Turismoa da sektoreen artean deslokalizatu ezin den eta lanpostuak sortzen dituen bakarretakoa. Gure  
turismo eskaintza ezin da beste inora eramanez. Horregatik, kontziente izan behar dugu baliabide honek mu-  
gak dituela eta ezin dugula zentzugabekeriak ustiatu. Gauza on bat dugu egun: baliabide honek indar handia  
duela, eta indar hori turismo iraunkor, zuhur eta zentzudun baten alde apustu egiteko baliatu beharra dago.

## Helburu orokorra

Zerbitzutan diharduten langile eta profesional asko eta asko autonomoak dira eta politika publiko ego-kiak beharrezkoak dira beraien lana balioan jartzeko. Aberastasun sortzaile izanik, autonomo/ekint-zaileen figura duindu behar da, egun duten babes soziala handituz.

Turismoari dagokionez, sektoreko eragile guztien oniritzia jaso zuen legea onartu genuen, eta bere ga-rapenerako beharrezko baliabide guztiak jarri behar dira, beti ere irizpide orekatu eta jasangarrietan oinarrituz.

Gure turismo eskaintza burutzeko garaian, ezin dugu ezaguna den horren gainean bakarrik aritu: hiri handiak, eta horien atzean hiriak bezain onak edo hobeak diren beste baliabide eta esperientzia batzuk gorde. Euskal Herri osoa ezagutzera eman behar dugu, nondik gatozen, nortzuk garen eta nora joan nahi dugun.

Barne turismoa bultzatzea ere garrantzitsua dela deritzogu, izan ere, oraindik orain gure ezagutaraz-teko eskaintzak egiteko aukera paregabea dugulako, baita barne turismo honek gure ekonomiarentzat oso baliagarria izan daitekeela ere.

Euskal Herriko errealitatea anitza izanda, bai geografikoki, bai hiri-herri banaketari dagokionean, bai eta kultura tradizionala eta modernoaren arteko dinamismoari dagokionean ere, garatu beharreko eskaintza turistikoak aukera anitzak eskaintzen dizkigu, Euskal Herriko turismo bereizlea garatzen joateko, eta EHko izarera propioa indartzen joateko geure mugez gaindi.

### ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

#### **1.- Turismoari buruzko plan estrategikoak lantzea, euskal legea ikuspegi jasangarri, sozial eta ardu-ratsu batekin garatuko dutenak**

- Turismoaren pisu ekonomikoa, potentziala, eragiten duen enplegu-sorkuntza eta abar zein diren jakitea ahalbidetzen duten diagnostikoak lantzea, neurri jakin batzuk definitzeko eta garatzeko abiapuntu gisa honako hauek bildu ahalko dituztenak, besteak beste:
  - Turismo-bulegoen eskaintzak dibertsifikatzea, jarduera ugari modu ordenatu eta jasangarrian sustatuta, balizko merkatuak kontuan izango dituztenak eta gure kultura-ondare aberatsarekin artikulatuko direnak, betiere natura-ingurunea eta lehen sektorea errespetatuz.
  - Kanpainak abiaraztea lurraldean turismo-eskaintzaren barietatea ezagutarazteko.
  - Gune edo mekanismo espezifikoak ezartzea askotariko gizarte-eragileek, baserritarrek, arrantzaleek eta tokiko garapen-agentziek parte har dezaten, baita turismo-sektoreko ordezkariak ere, izaera partizipatibo eta zeharkakoa duten turismoko mahai sektorialen esparruan.

- Egungo araudia berrikustea eta falta dena bultzatzea turismo jasangarriaren, arduratsuaren eta dibertsifikatuaren eredia indartzen jarraitzeko.
- Genero-ikuspegia daukaten etengabeko prestakuntza-planak ezartzea eragile interesdun guztien parte-hartzearekin, behin premiak diagnostikatutakoan.
- Sinergiak ezartzea Europako beste eskualde batzuekin gure turismo-eredua bultzatzeko.
- Laguntza ekonomikoko lineak eta aholkularitza jarraituko zerbitzuak ezartzea gure ereduarekin uztartzen diren enpresak eta turismo-zerbitzuak sustatzeko.

## 2.- Zerbitzuen sektoreko langileen egoera sozio-laborala duintzea

- Merkataritza-eredu lokala, jasangarria eta bidezkoa babestea, azalera handien eta enplegu prekarioaren eredia baztertuta.
- Lan-hitzarmen duin eta bidezkoen aldeko borroka babestea, eta lan-harremanen eta gizarte-babesaren esparru propioa aldarrikatuz jarraitzea.
- Sektorean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko premia defendatzea, emakumeen mesederako diren kontziliazio-neurriekin, laguntza espezifikoeekin eta abarrekin, besteak beste.
- Zerga-politika bidezko eta progresiboa defendatzen jarraitzea, gehien duenari eta soldata handienak dituztenei gehiago eskatuko diona.
- Genero-ikuspegia daukaten diagnostiko partizipatiboak egitea langile autonomoen errealitateari buruz eta plan integral eta asmo handikoak martxan jartzea errealitate horri aurre egiteko, hainbat neurri barnean hartuta, hala nola kolektibo prekario eta kalteberentzako laguntzako eta etengabeko aholkularitzako neurriak, lankidetzak bultzatzea, asoziazionismoa eta langile autonomoen arteko aliantzak, eta abar.



# Merkataritza

## Diagnostiko, kokapena

Bertako merkataritzak egoera zaila bizi du gaur egun, eta bidegurutze batean dago gainera. 2007. urtean krisialdia hasi zenez geroztik, bi gauza gertatu dira: barne-kontsumoak oso jaitsiera handia izan du, eta aldaketa handia gertatu da herritarren kontsumitzeko ohituretan.

Kanpoko bi faktore horiez gain, bertako merkataritzaren indar ekonomikoak okerrera egin du eta, horren ondorioz, lehiakortasuna galdu da kontratatutako langileei, behar adinako langileak kontratatuta ez edukitzeagatik, eta saltokien irudian egindako inbertsioei lotutako alderdiengatik, baliabiderik ezak ezin izan dielako horiei aurre egin.

Hau horrela, kontsumitzeko ohituretan gertatutako aldaketa bi alderditan geratu da agerian nagusiki: lehena, etxeko ekonomien okerragotzearen ondorioz gertatu dena, prezio baxuetan erosteko aukerari lotuta dago; horrek, alde batetik, pobretu egiten du herrialdeko produkzio-sarea, eta, bestetik, “low-cost” moduko merkataritza-formatuak nagusitzen dira. Formatu horiek enpresa handiei eta, beraz, kapital handiari lotuta daude.

Egoera orokor honen aurrean, tokiko merkataritza bultzatu beharreko jarduera da gure ustez. Batetik, aipatu bezala, herriei, auzoei eta kaleei bizitza ematen dielako eta harreman pertsonalak garatzeko aukera gehiago ematen dituelako. Tokiko merkataritza ekologikoa da, oro har, globalizazio ekonomikoaren produktueterako egina ez dagoelako eta ordutegien aferak erakutsi duen moduan.

Azalera handiak irekitzen direnean, lanpostuak sortzen direla esaten digute, baina oro har ahaztu egiten da bertako merkataritzan zenbat jende lan egiten duen eta zein garrantzia daukaten gure herrien ekonomian.

Azalera handiko merkatal zentroak sistema kapitalistak bultzatzen duen kontsumismo basatiaren isla dira. Erosketa eta aisialdia uztartu nahi dituen filosofia bera, horren isla nabarmena da, non proposatzen zaigun aisialdia kontsumoan soilik oinarrituta dagoen.

Oro har, azalera handi hauek mundu mailako enpresa eta produktuentzat gune edo saltoki dira, izan ere era honetako merkatuguneetan ekoizle txikientzako baldintzak hain zorrotzak dira auren produktak saltzeko oso aukera gutxi dituztela.

Herri askotan dendari, kontsumitzaile eta merkatarien elkarteak sortu dira eta elkarlana helburu duten neurrian eta sarri jarduera soziala eta kulturala bultzatzeko egitasmoak lantzen dituztelarik, gure babes osoa behar dute izan. Merkatari elkarteekin batera elkarlana bultzatzea garrantzitsutzat jotzen dugu, baita gure eredu sozial eta ekonomikoaren norabidean urratsak eta ekimenak bultzatu eta laguntzeko ere.

## Helburu orokorra

Datozen lau urteetan, helburu nagusia gure herria murrizketarik gabeko herria izatea lortzea da, egungo egoerari buelta emanez, galdutako hainbat eskubide indarrean jarriz eta baita ere aurrerapausoak emanez, babes mailan Europako batz bestekoei heltzeko ahaleginetan. Eta hori dena, langileekin lankidetzan, azken urteetan jaso duten zigorra eta mespretxua gaindituz.

Udalekin, eskualdeko mankomunitate edo garapen agentziekin eta gobernu autonomikoen inplikazio ekonomikoaz, herrialdeko tokiko merkataritzaren eraberritzeko eta bultzatzeko plan estrategikoa burutzea dugu helburu.

Bertako merkataritzaren bertako produktuen salmentarekin batera sustatzea dugu helburu, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko lotura gertuko merkataritzaren bidez burutuko delarik.

Langileen prestakuntza, teknologia berrien aplikazioa eta etengabeko berrikuntza besteren artean, abiatu beharreko baliabideak dira. Gainera, eskualdeen arteko elkarlanak, bai eta merkatari edota ostalarien elkarteek bultzatzen dituzten egitasmo sozial eta kulturalak bultzatzeak, merkataritzaren logika sozialaren bidean jarri beharko gaituzte.

### ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

#### 1.-Tamaina txiki eta ertaineko hurbiltasuneko merkataritzaren eredu bat bultzatzea, jasangarria eta bidezkoa

- Prestakuntza-prozesuak modu partizipatiboan diseinatu eta martxan jartzea sektoreko langileak profesionalizatzeko.
- Laguntza-ildoak martxan jartzea saltoki txikia mantentzeko eta jasangarriak izan daitezen, gune degradatuen edota herrigune historikoen biziberritzea eta merkataritzaren garapena bereziki azpimarratuta.

- Laguntza ekonomikoak eta zerga-kenkariak sustatzea merkataritza txikiak teknologia berrietan inberti dezan eta I+G+Bko proiektuetan garatzeko.
- Laguntza ekonomikoak, zerga-kenkariak eta prestakuntza bultzatzea publikoarentzako zuzeneko salmenta sustatzeko.
- Tamaina txiki eta ertaineko merkatarien elkarteak sortzeko aukera bultzatzea, eta merkatarien elkarrekin izatera sozial eta kulturaleko ekimenak babestea eta bultzatzea.
- Eragile guztien arteko hitzarmen eta akordioak sustatzea, lan- eta gizarte-baldintza duinak ahalbidetuko dituztenak sektoreko langileentzat.
- Eskualdeen arteko sinergiak bilatzea zerbitzu jakin batzuetarako.
- Banaketa-zirkuitu laburren edo produzitzailetik kontsumitzaileerako salmenta zuzeneko zirkuituen ezarpena sustatzea eta ahalbidetzea, lehen sektorearekin inplikazio eta lankidetzaren bidez.
- Sektore berriak bultzatzea, bidezko merkataritzako sareak zabaltzea, dagozkion produktuen merkaturatzea bultzatuz.

## 2.- Toki-politikak hurbiltasuneko merkataritzaren alde

- Klausula sozialak sartzea Administrazio Publikoaren erosketetan, udalek erosketak beren herriko saltokietan egin ditzaten, esate baterako.
- Tokiko diruaren erabilera bultzatzen jarraitzea hurbiltasuneko saltokietako erosketetan erabiltzeko.
- Kontziliazioa errazten duten irekitze-ordutegiak defendatzea (jaiegunetan ez irekitzea eta ordutegi murriztuak, besteak beste), baita aisia-kontsumo binomioari nahitaez lotuta ez dagoen gizarte-eredu bat ere.
- Tokiko lurralde-antolamenduko planen bidez saltoki txikien ezarpena erraztea azalera handien kaltetan (azalera handi horiei baimenak emateko inpaktu sozial eta ingurumen-arlokoak kontuan hartuko dizuten merkatu-azterlanak eskatuz).





## Hedabideak

### Diagnostiko, kokapena

Komunikazioarena auzi zentrala da Euskal Herriarentzat. Ez dago kulturarik gabeko komunikaziorik, ez eta komunikatua ez den artean bizi daitekeen kulturarik, are gehiago mediatikoki saturatutako jendarte garaikideetan.

Euskal esparru komunikatibo propio eta sendo baten gabezia agerikoa da. Ez dago euskal agenda komunikatiborik. Esparru komunikatiboan kanpoko agenteak dira erreferente nagusiak eta egoera hori areagotu egin da atzen hamarkadan digitalizazioa eta sare sozialak medio. Nazio izan nahi badugu, herri izan nahi badugu, ezinbestekoa da esparru komunikatibo propio sendoa izatea, oinarriak alor publikoan zein pribatuan dituen.

Espazio horren ezaugarrietako bat euskara izango da. Alor publikoan EiTbren eraberritzearen premia inork gutxik auzitan jartzen du gaur gaurkoz. 1982an sortuz geroztik, euskararen, teknologien eta komunikazio ohituren bilakaerek ezagutu gabeko paradigma berri baten kokatzen dute EITB. Euskara ulertzeko gai zirenak populazioaren herena izatetik, erdia baino gehiago izatera igaro dira. Beraz, babilizko ikus-entzulegoa izugarri hazi da.

Internet eta digitalizazioak, 82an bi katekin lehiatuzetik, ehundaka katekin lehiatzera eraman du. Kalitatezko hedabide publikoak eta hauek bete beharreko funtzio soziala izan behar dira hedabide publikoen gaineko eztabaidako oinarriak.

Halaber, kontuan hartu behar dira ekimen pribatuko euskal ikus entzunezkoak eta bilatu beharko da elkarlan publiko-pribatua ikus-entzunezkoen alorrean euskal esparru komunikatiboa sendotzeko.

Bestetik, euskarazko tokiko komunikabide-sare zabala dugu. Horietako batzuk erreferentziazkoak beren eskualdeetan. Tokiko komunikabide horiek euskal esparru komunikatibo osagai ezinbestekoak dira eta horiek babestea eta sendotzea lehentasunezkoa da.

Tokiko eta herri ekimeneko idatzizko eta ikus-entzunezko komunikabideek azken urteetan sortu duten ehundura komunikatiboa oso garrantzitsua da, eta puntu askotan sektore publikoak bere kabuz lortu duena baino interegarriagoa eskenatokiaren aldaketan aurrean.

## Helburu orokorra

Jada ez zaigu nahikoa euskal komunikazioaren eremuan parte hartzen duten eragile, sektore kanal, igorle eta hartzaileak modu isolatuan aztertu eta ulertzearekin.

XXI mendeko gure komunikazioaren ikuspegi sistemiko eta are, ekosistemiko bat garatu behar dugu eta konkretuki hiru gako birpentsatu behar ditugu: jabegoa, ekoizpena eta banaketa, eta harrera.

Birpentsatze hau gainera, arnasestuka eta azken unean egin baino, luzerako begiradarekin eta arnas luzeko jarduerari begira burutu behar dugu.

Tokiko eta herri ekimeneko idatzizko eta ikus-entzunezko komunikabideek azken urteetan sortu duten ehundura komunikatiboa oso garrantzitsua da. Berau babestu eta sustatzea dagokigu guri.

### ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

#### 1.- Euskal komunikabideen ekosistema baten alde jardutea

- Komunikabideen sektorea estrategikotzat aitortzea.
- Komunikazioko lege propioak garatzeko, elkarriketa- eta adostasun-marko bat nabarmentzea, erabiltzaileen, sortzaileen, profesional eta herritarren parte-hartzea kontuan hartu beharko duena hainbat gaitan, hala nola sarbidea, informazioa, pribatutasuna, segurtasuna, kultura, aniztasuna, eta abar.
- Diagnostiko integral eta partizipatiboa egitea agente guztiekin, oinarri izango dena politika halaber integral eta partizipatiboa bultzatzeko, komunikazio-espazio propio bat garatzeko, honako neurri hauek bildu ahalko dituenak, besteak beste:
  - Diru publikoarekin subentzionatutako komunikabideei eta administrazioen menpekoei beren produkzioaren zati bat euskaraz izan dadila exijitzea.
  - Euskarazko komunikabide guztiak babestea, bultzatzea eta haiei laguntzea, hitzarmenen, diru-laguntza linea egonkorren eta abarren bidez.
  - Toki-administrazioek euskarazko komunikabideetan publizitate instituzionala egin dezatela sustatzea.
  - Tokiko komunikabideak babestea eta komunikazioko herri-ekimenak bultzatzea, baita ekimen horiek saretan artikulatzea ere.
  - Euskal jendartearen premietara egokitutako markoak ezartzea herritarren eta sektorean aplikatutako agente guztien parte-hartzerako.

## 2.- Sozialki justua eta arduratsua den komunikazioko euskal ekosistema bat sustatzea

- Gure jendartearen aniztasunaren adierazgarri diren kultura-adierazpideek, kirol-jarduerak eta abarrek komunikabideetan presentzia dutela ziurtatzea, bereziki minoritarioak direnen agerikotasuna zainduz, baita emakumeen eta kolektibo pobretuen protagonismoa ere.
- Kontzientziazio sozialeko kanpainak egitea eta martxan jartzea komunikabideekin koordinatuta (hezkuntza ez-sexista, genero-kontzientziazioa, aztura osasungarriak, sasoi fisiko onean mantentzeko premia, osasun-azterketak...).
- Kanpaina instituzional eta publizitarioak bultzatzea errealitate sexual minorizatuei agerikotasuna emateko, modu positibo eta aberasgarrian aditzera emanez. Tratu txarren aurkako kanpainei dagokienez, genero barneko indarkeria bilduko da kanpaina horietan eta agerikotasuna emango zaio.
- Indarkeria sexistari buruzko protokoloak modu partizipatiboan lantzea komunikabideen tratamendu egokia ziurtatzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, eduki sexistak desagerrarazteko, eta emakumeei eta zanpatutako beste kolektibo batzuei protagonismo egokia emateko, hala nola LGTBI+, pertsona arrazializatuak, migratzaileak eta abar.
- Lankidetzak eragileekin, eragile sindikalekin, eta abarrekin, komunikabideak agente aktiboak izan daitezen lortu nahi dugu gizarte-ereduaren sustapenean: errespetuzkoa pertsona guztien giza eskubideekin, natura-ingurunearekin, kritikoa eta aktiboa, partizipatiboa, ekitatiboa, justua, feminista...



**ehbildu**